# EDUŔTZEAN

Eduŕak estaldu dauz zidoŕ-bidiak
bere ixaŕ baŕi-garbi-kutsagiaz.
Mendijak dagoz zuri, zuri laŕeak,
zuri-zurijak landa zabal leunak.

---

Bitxabal albuetan dagoz zugatzak
eduŕagaz jantzila loratsubak,
eta euren bitaŕtian bitxabal luze
-luzia, bai zuririk, oñatzeka.

---

Bakaŕik dagoz ilun ortze zabala
odei baltzaz beterik, eta eŕeka.
Beste batzutan argi, alai, egozan
gauŕ eduŕen aldian, ilundubak.

---

Mendi baten aldaŕzan ardijak dagoz.
Gauŕ eztira zurijak, dira aŕiak,
artulia bustita epel-motelak
eduŕ aldian dira zantaŕ-loyak.

---

Bitxabal ertzan bere dagoz aŕijak
kareaz zurituta, gau ilunan
bidia nundik duan, jakin dagijan
guŕdibilaz, igaro biaŕ daunak.

---

Beste batzutan zuri, ta gauŕ ilunak
ageŕtzen dira aŕijok goiz onetan.
Ilun dago eŕekea, ilun ortzia,
ilun aŕi zurijak eta ardijak.

---

Zerutik jatsiriko eduŕ baŕija
¡zeu bakaŕik zurija, zeu garbija!
Zeuren aldia ludiko gauza gustijak
kutsatuta dakuskuz, zikinduta.

---

Jauna, zeure deuntasun amaige aldian
geure egipen onenak ¿zelakuak?
Odol iguingaŕijaz loturiko oyal
zantaŕ-loi-zikiñaren antzekuak.

---

Neure egiñak, Jaun oŕek, ez begiratu
onenak, txaŕak dira zeure auŕian.
Zeure eŕukiŕasuna neuŕibakuak
eruan nagijala, aŕen, donokira.

UTAŔSUS

---

# Ama umiagaz

Ene gotzontxu txikija,
Ene biotzaren zatija,
Etxagok txoririk
Ezta lorarik
Eu baño poliŕagorik.
Eure baŕeiŕi gozo-gozua
Dok argitzen dauna
Neure gogua,
Edeŕa dala, ¿zer dok goxaldia
Eure onduan? Ezebez matia
¡Ene bijotza! baŕetxu bat egik...
Aolan... laztandu nagik...
Laztanduik gogoŕ eure ama,
Ama laztana.
Egiztak ma...
Beste bat orain... ia beste bat...
Gozatsu yaukuat
Neure baŕuba
Ene gotzontxuba.
Ezinduket ez ordeztuko nik
Ludijan dan guztijagatik;
Eguzki neuria
Amaren loria
Neure bixija
Neure guztija.

KIRIKIÑO.